



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **2017KO UZTARILAREN 7AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA**

**Etorri diren batzordekideak:**

**Mikel Agirrezabala Ezkurdia**

Etorri diren zinegotziak:  
Jon Mikel Iglesias Otegui  
Irati Ozaita Azpiroz  
Itziar Jauregui Huarte

**Idazkaria:** Naia Ruiz de Eguino Garcia-  
Echave

Ibarran 2017ko uztailaren 7an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkatea izan zen eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

### **LEHENA:**

#### **1.2017KO EKAINAREN 23KO AKTAREN ONARPENA**

2017ko ekainaren 23an eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### **ERABAKIA**

**BAKARRA:** Onartzea 2017ko ekainaren 23an eginiko Gobernu Batzarraren akta



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **BIGARRENA:**

### **2.-2017KO EKAINAREN 23AN BURUTURIKO GIZARTE POLITIKAK ETA POLITIKA FEMINISTA ETA ANIZTASUNABATZORDEAREN INGURUAN HARTURIKO ERABAKIAK**

Diru laguntza denak dekretu bidez eman direnez puntu hau Gobernu Batzordeari jakinarazi egiten zaio soilik.

## **HIRUGARRENA:**

### **3. 2017KO EKAINAREN 22AN BURUTURIKO INGURUMEN, MERKATARITZA ETA NEKAZARITZA BATZORDEAREN INGURUAN HARTURIKO ERABAKIAK**

#### **3.1 ASTE BERDEA 2017. AURREKONTUA**

Urtero legez, 2017ko ekainaren hasieran Aste Berdea ospatu zen Europa mailan, ekainaren 5ean Ingurumen eguna izanik. Tolosaldeako udalek eskualdean hainbat ekitaldi antolatu zituzten eta Ibarra Udalak ere bat egin zuen ekimen honekin, honoko ekintza hauek antolatuz:

1. Ekainaren 6an, asteartea: Liztor Beltzaren inguruko azalpenak  
Uzturpe Ikastolako LH 6ko ikasleek Liztor Beltzak gure gizartean (nekazaritzan, erlezaintzan, ingurumenean) duen eraginaren azalpenak jaso zituzten Asier Armendariz erlezainaren eskutik.
2. Ekainaren 7an, asteazkena: Konpostaren banaketa 10.00ak – 12.00ak bitartean  
Uzturpe Ikastolako ikasleen laguntzarekin, konposta gertutik ikusi eta interesa duten herritarren artean banatu zen.
3. Ekainaren 10ean, larunbata: Ingurumenaren Eguna Izaskunen

Aurten, eskualdeko ikastetxeetan uraren gaia landu da Eskola Agenda 21 programaren bitartez, hori dela eta, Ingurumen Eguna ospatzeko, urari lotutako ekimen nagusi bat antolatu zen Izaskunen. Bertan, Uzturre azpian, Misericordia zaharreko lursailetan aurkitu diren garai bateko bainuak eta ur-jauziak



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

ezagutarazteko Mendiklown ibilbidea antolatu zen, familiei zuzendua; sorpresaz eta ezustez beteriko paseoa, etxeko txikienek gozatzeko modukoa. Ibilbidearen amaieran, Intujai antzerki taldeko kideak egon ziren tutumuturru ipuinak kontatzen eta ponpa erraldoiekin jolasak egiten. Urari lotutako eta yogurtak egiteko tailerrak eta hamaiketakoa ere izan ziren, eta baita, EA21 programan parte hartu duten ikasleen konpromisoen eta hausnarketen erakusketa ere.

Kontuan hartuta ekainaren 6an Asier Armendarizek debalde eman zuela Liztor Beltzaren inguruko txarla Ikastolan, Udalak eskatuta.

Kontuan hartuta Ingurumen Egunean honoko gastuak sortu zirela:

<b>INGURUMENAREN EGUNA. Ibilaldia</b>		
<b>KONTZEPTUA</b>	<b>ENPRESA</b>	<b>EUROAK (BEZ GABE)</b>
Ikuskizuna	Intujai	1.200,00
Hamaiketakoa	Izaskun Taberna	200,00
	Izaskun Jatetxea	300,00
Autobus zerbitzua	Tolosaldea Bus	110,00
Kartelaren diseinua eta inpresioa	Bo5t	208,00
Tailerrak	Larreta esnekiak	100,00
Indio	Amarozko Mendi Elkarte	100,00
Besteak	Copi bat	22,50
Besteak	Zubelzu	9,00
Besteak	Bazar Gran Gema	1,82
<b>GUZTIRA</b>		<b>2.251,32</b>

Tolosaldea Garatzenek, eskualde mailan Ibarra eta Tolosako udalen laguntzarekin antolaturiko ekintza izanik, ordainketa era honetara egitea proposatzen du:

- Intujai taldearen faktura, 1.452 €-koa (BEZ barne), bi udalen artean ordaintzea, hain zuzen, udal bakoitzak 726 €.
- Gainerako gastuak Tolosaldea Garatzenek bere gain hartzea.

Kontuan hartuta Intujai taldearen faktura 2017ko ekainaren 10ean iritsi dela Ibarra Udalaren izenean, guztira 726 €-ko zenbatekoagatik, BEZ barne.

Kontuan hartuta Ibarra Udalak zenbateko horiek 2017ko Aurrekontu Orokorraren bitartez finantziatu ahal dituela, 1.0000.226.170.00.06 2017 partidaren bitartez.

2017ko ekainaren 22an buruturiko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## ERABAKIA

LEHENA: Asier Armendarizeri bazkari bat oparitzea, bere familiarekin.

BIGARRENA: Intujai taldearen faktura onartzea guztira 726 euroko zenbatekoagatik, BEZ barne.

HIRUGARRENA: Kontuhartzaitzak zenbateko horiek 1.0000.226.170.00.06 2017 partidaren bitartez ordaintzea fakturak iristen direnean.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri eman Kontuhartzaitza sailari

BOSGARRENA: Erabaki honen berri Intujai taldeari ematea (E).

### **3.2 MOLPOIDO AUZOA. BUZOIAK**

Molpido auzoko bizilagunen buzoiak Apatterreka 1 kalean aurkitzen dira, eta oso zaharkituak daude.

Kontuan hartuta Korreoseko langileak udal brigadako buruari behin baino gehiagotan eskatu diola buzoi horiek berritzea.

Kontuan hartuta Udaleko ingurumen teknikariak Lorepark enpresari aurrekontua eskatu ziola, hain zuzen, soporterik gabeko 10 buzoi berritzeko.

Kontuan hartuta Lorepark enpresak honoko aurrekontua aurkeztu duela:

<b>EZAUGARRIAK</b>	<b>KOPURUA</b>	<b>EUROAK (BEZ BARNE)</b>
Erref. 85271	10	1.274,13

Kontuan hartuta Ibarra Udalak zenbateko hori 1.0000.625.153.30.00 2017 aurrekontu partidatik finatziatu dezakeela.

2017ko ekainaren 22an buruturiko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

## ERABAKIA

LEHENA: Lorepark enpresaren aurrekontua onartzea, guztira 1.274,13 euroko



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

zenbatekoagatik, BEZ barne.

BIGARRENA: Kontuhartzaitzak zenbateko hori 1.0000.625.153.30.00 2017 aurrekontu partidatik ordaintzea, dagokion faktura iristen denean.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri kontuhartzaitzari ematea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Lorepark enpresari ematea. (G + E)

### **3.3 GURRUTXAGA LEHIOAK. AURREKONTUA**

Hiri-hondakinen kontenedore bidezko bilketa 2017ko maiatzaren 22an jarri zen abian, kontenedore marroia eta grisa irekitzeko zein poltsa konpostagarriak makinatik hartzeko txartelak maiatzaren 18, 19 eta 20 bitartean banatu ziren herritarren artean.

Aipaturiko poltsa konpostagarriak banatzeko makina ekainaren hasieran iritsi zen eta Euskal Herria 18 kalean kokatu da. Ordea, kokalekua egokitzeko helburuarekin, marko bat egitea beharrezkoa du, ondo enkajaturia eta txukun geratzeko.

Kontuan hartuta Gurrutxaga Leihoak enpresak 344,85 euroko aurrekontua (BEZ barne) aurkeztu duela 2017ko ekainaren 7an.

Kontuan hartuta Ibarra Udalak zenbateko hori 1.0000.623.162.10.02 2017 aurrekontu partidatik finantziatu dezakeela.

2017ko ekainaren 22an buruturiko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### **ERABAKIA**

LEHENA: Gurrutxaga Leihoak enpresaren aurrekontua onartzea, guztira 344,85 euroko zenbatekoagatik, BEZ barne.

BIGARRENA: Kontuhartzaitzak zenbateko hori 1.0000.623.162.10.02 2017 aurrekontu partidatik ordaintzea faktura iristen denean.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri kontuhartzaitzari ematea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Gurrutxaga Leihoak enpresari ematea. (E).



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

### **3.4 MERKATARI ELKARTEA. DIRU-LAGUNTZA**

Herriko merkataritza bultzatzeko helburuarekin, 2012 urtean Ibarra Udalak PERCOa egin zuen Ikeri aholkularitzaren laguntzarekin. Hainbat proposamen/ekintza jasotzen dira bertan eta Udala zein Merkataritza Elkarteak gauzatuz doaz pixkana eskura dituzten baliabideekin.

Kontuan hartuta aurten ere Ibarra Merkataritza Elkarteak hainbat ekintza gauzatzeko asmoa duela datozen hilabeteotan.

Kontuan hartuta Ibarra Udalak 5.000 €-ko zenbatekoa aurreikusi zuela 2017ko Aurrekontu Orokorrean, hain zuzen, 1.0000.434.431.00.01 2017 aurrekontu partidan.

2017ko ekainaren 22an buruturiko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### ERABAKIA

LEHENA: Merkataritza Elkarteari 5.000 €-ko diru laguntza ematea.

BIGARRENA: Kontuhartzaitzak zenbateko hori 1.0000.434.431.00.01 2017 aurrekontu partidatik ematea merkataritza elkarteari.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Kontuhartzaitzari ematea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Merkataritza Elkarteari ematea. (E).

### **3.5 UZTULARRE ELKARTEA**

Izaskun auzoan Uztularre Elkarteak sortu zen iaz, 2016 urtean, auzoaren bizitasuna areagotze eta dinamizatzeko aldera: ibilbideen seinaleztapena, informazio panela, hitzaldiak, eta abar.

Kontuan hartuta Ibarra Udalak 5.000 €-ko zenbatekoa aurreikusi zuela 2017ko Aurrekontu Orokorrean, hain zuzen, 1.0000.434.338.10.01 2017 aurrekontu partidan.

2017ko ekainaren 22an buruturiko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## ERABAKIA

LEHENA: Uztularre Elkarteari 5.000 €-ko diru laguntza ematea.

BIGARRENA: Kontuhartzaitzak zenbateko hori 1.0000.434.338.10.01 2017 aurrekontu partidatik ematea Uztularre Elkarteari.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri kontuhartzaitzari ematea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Uztularre Elkarteari ematea. (E).

### **3.6 DESRATIZAZIOA. KONTRATUA 2017-2018**

2017ko ekainaren 30ean amaitzen da Udalak Campos Garbirekin duen kontratua herriko desratizazioa egiteko.

Kontuan hartuta ingurumen, merkataritza eta nekazaritza teknikariak hiru aurrekontu eskatu dituela aipaturiko desratizazioa 2017-2018 urtean egiteko: Campos Garbi, SGM DEGUR eta FLD.

Kontuan hartuta horietariko bi enpresek aurkeztu dutela euren aurrekontua:

<b>ENPRESA</b>	<b>ZERBITZUA</b>	<b>EUROAK (BEZ BARNE)</b>
CAMPOS GARBI	“kolpe” tratamendu bat + ikuskapen-mantentze lanak hilabetero	3.273,61
SGM DEGUR	Bi “kolpe” tratamendu	4.614,09
FLD	----	----

Kontuan hartuta bi aurrekontuak alderatuta Campos Garbik zerbitzu zabalagoa eskeintzen duela, ekonomikoki merkeagoa izateaz gain.

Kontuan hartuta Ibarra Udalak 3.273,61 euroko zenbatekoa 1.0000.227.311.20.99 2017 aurrekontu partidatik finantziatu dezakeela.

2017ko ekainaren 22an buruturiko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

## ERABAKIA



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

LEHENEA: Campos Garbirekin aurrekontua onartzea 2017-2018 urterako, guztira 3.273,61 €-ko zenbatekoagatik, BEZ barne.

BIGARRENA: Kontuhartzaitzak zenbateko hori 1.0000.227.311.20.99 2017 aurrekontu partidatik ordaintzea faktura iristen denean.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri kontuhartzaitzari ematea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Campos Garbi eta SGM DEGUR enpresei ematea (E).

### **3.7 PINUDIA ATERATZEKO BAIMENA. IDOIA ZEBERIO**

Idoia Zeberio Ansak, 01-590 lursaileko Larizio pinudia ateratzeko baimena eskatu dio Ibarra Udalari 2017ko ekainaren 13an, berau Berrobotik ateratzerakoan 300m inguruko zati bat Ibarrena baita.

Kontuan hartuta ingurumen, merkataritza eta nekazaritza teknikariaren txostena, non 300 €-ko fidantza jartzea proposatzen den, 2015eko azaroaren 24an egindako tasazioaren arabera 01-590 lursailak 403,26 m<sup>3</sup> izanik gaur egun pinu horietariko batzuk gaitzak jota baitaude.

2017ko ekainaren 22an buruturiko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### **ERABAKIA**

LEHENEA: Aintzat hartzea ingurumen, merkataritza eta nekazaritza teknikariaren txostena eta Idoia Zeberio Ansa andreari 300 €-ko fidantza eskatzea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri kontuhartzaitzari ematea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Idoia Zeberio Ansa andreari ematea. (E).

### **3.8 HONDAKINAK. TXARTELA HARTU EZ DUTENEN ZERRENDA**

Hiri-hondakinen kontenedore bidezko sistema bilketa berria martxan jartzeko helburuarekin, Ibarra Udalak txartelak banatu zituen herritarren artean maiatzaren 18,





**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

19 eta 20 bitartean, kontenedore marroia eta grisa irekitzeko zein poltsa konpostagarriak makinatik hartzeko.

2017ko ekainaren 22 bitartean herritarren batzuk oraindik ez dituzte dagozkien txartelak hartu, horien artean etxebizitza hutsak daudelarik.

Kontuan hartuta hiri-hondakinen udal ordenantzako 34.3 artikularen arabera, arau-hauste arina dela edukiontzi marroia eta grisa irekitzeko zein poltsa konpostagarriak eskuratzeko txartelak ez hartzea.

2017ko ekainaren 22an buruturiko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

**ERABAKIA**

**BAKARRA:** 2017ko uztailaren 28 bitartean edukiontzi marroia eta grisa irekitzeko zein poltsa konpostagarriak eskuratzeko txartela hartu ez duten herritarrei, etxebizitza hutsak alde batera utzita, gutun bat bidaltzea dagokien txartela hartzea eskatzeko uztailaren 28 baino lehen, gainerakoan isuna jarriko zaiela azalduta.

**LAUGARRENA:**

**4.-TOLOSALDEA GARATZENEI GESTIO PLANEAN ZEHAZTEN DEN ORDAINKETA EGITEA ONARTU**

2016ko abenduaren 12ko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean zehazten da 2017 urterako Ibarako Udalak Tolosaldea Garatzenei egin beharreko ekarpena.

Ordainketa bi zatitan egitea proposatu zen: bata martxoaren 30ean eta besta aldiz irailaren 30ean.

2017ko martxoaren 16an lehen ekarpena egin zen 16.587,50 euro alegia.

Bigarren ordainketa egiteke dago (2017ko irailaren 30ean ordaindu beharrekoa).

Hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

**ERABAKIA**

**LEHENGOA:** Onartzea Tolosaldea Garatzenei, 2016ko abenduaren 12ko Batzar Orokorrean onarturiko Gestio Planaren arabera, 16.587,50 euroko ekarpena ordaintzea (bigarren ekarpena)



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

**BIGARRENGOA:** Jakinaraztea Kontuhartzailtza sailari ordainketa egin behar dela 2017ko irailaren 30 baino lehenago eta ordainketa egitea agintzea.

**HIRUGARRENGOA:** Erabaki honen berri eman Tolosaldea Garatzenei

### **BOSGARRENA:**

**GALDE-ESKAERAK**

Ez dago

Eta eguneko gai-zerrendan aztertu beharreko beste gairik ez zegoenez, batzordeburu and.ak egintza amaitutzat eman zuen goizeko hamaikak eta hogeirenean, eta nik, idazkari naizen honetan, horixe egiaztatu nahi dut